Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

# RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA Nº 458. ALKATEAREN EBAZPENA
**(Testua/Texto: 2020ZAUN0018)**

**Gaia:** BELARTZAKO MENDI-HEGALEAN APARKALEKU BAT ERAIKITZEKO PROIEKTUA IDAZTEA, prozedura irekia erraztuaren bidez kontratatzeko espedientea. Kontratuaren esleipena.

**Egitateak:**

- Kontratazio hau onartzeko espedientea 2021eko martxoaren 3an Alkate-Lehendakariak onetsi zuen.

- Kontratazio hau lizitatu da klausula administratibo berezien pleguan ezarritakoaren arabera.

- Honako enpresa hauek dira esleipen honetarako eskaintzak onartu zaizkienak :

TÉCNICA Y PROYECTOS, S.A.

I-INGENIA INGENIERIA Y ARQUITECTURA, S.A.

GIRDER INGENIEROS, S.L.

SESTRA INGENIERIA Y ARQUITECTURA, S.L.

VAUMM ARQUITECTURA Y URBANISMO, S.L.P.

- 2021eko apirilaren 22ko Kontratazio Mahaiaren akordioaren bidez, 2021eko apirilaren 26an VAUMM ARQUITECTURA Y URBANISMO, S.L.P. enpresari jakinarazia, enpresa hau baztertu egin da esleipen-prozeduratik. Enpresa honek lehenengo gutun-azalean (1.), dokumentazioari eta irizpide ez-automatikoen eskaintzari buruzkoan, irizpide automatikoen eskaintza jasotzen duen bigarren gutun-azalari (2. ) buruzko informazioa sartu bait du.

- Kontratazio Mahaiak, 2021eko apirilaren 22an egin zuen esleipen-proposamena, SESTRA INGENIERIA Y ARQUITECTURA, S.L. enpresaren alde; eskaintza ekonomikoan adierazitako baldintzetan, osotasunean abantaila handiena dituen eskaintza delako.

- SESTRA INGENIERIA Y ARQUITECTURA, S.L. enpresak 2.933,88 euroko behin betiko bermea eratu du eta beharrezko dokumentazioa aurkeztu du, kontratu honen esleipendun izateko.

**A la vista del** expediente relativo a la contratación mediante procedimiento abierto simplificado de la REDACCIÓN DE PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE UN APARCAMIENTO EN LA LADERA DE BELARTZA. Adjudicación del contrato.

**Resultando los siguientes hechos:**

- Que el expediente de esta contratación fue aprobado el día 3 de marzo de 2021 por el Alcalde-Presidente.

- Que esta contratación ha sido objeto de licitación según lo establecido en el pliego de clausulas administrativas particulares.

- Que, las empresas cuyas ofertas han sido admitidas para la presente adjudicación son las siguientes:

TÉCNICA Y PROYECTOS, S.A.

I-INGENIA INGENIERIA Y ARQUITECTURA, S.A.

GIRDER INGENIEROS, S.L.

SESTRA INGENIERIA Y ARQUITECTURA, S.L.

VAUMM ARQUITECTURA Y URBANISMO, S.L.P.

- Que mediante acuerdo de la Mesa de Contratación de fecha 22 de abril de 2021, notificado a la empresa VAUMM ARQUITECTURA Y URBANISMO, S.L.P. en fecha 26 de abril de 2021, se ha excluido del procedimiento de adjudicación a dicha empresa, porque ha incluido dentro del sobre primero (1º), de documentación y oferta de criterios no automáticos, información relativa al sobre segundo (2º) comprensivo de la oferta de criterios automáticos.

- Que la Mesa de Contratación, efectuó su propuesta de adjudicación el día 22 de abril de 2021, a favor de la empresa SESTRA INGENIERIA Y ARQUITECTURA, S.L., en las condiciones ofertadas en la oferta económica, por ser la oferta más ventajosa en su conjunto.

- Que la empresa SESTRA INGENIERIA Y ARQUITECTURA, S.L. ha constituido la garantía definitiva por un importe de 2.933,88 euros y ha aportado la documentación necesaria para ser adjudicataria del presente contrato.

**Argudioak:**

- SESTRA INGENIERIA Y ARQUITECTURA, S.L. enpresari esleitzea proposatzen da, osotasunean interes publikoetarako abantaila gehien dituen eskaintza ekonomikoa dela iritzita, betiere pleguetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera Mahaiak egindako eta espedienteak jaso eta kontratugile profilean argitaratuta dauden balorazioetan oinarrituta. Horrenbestez, honako puntuazio hauek eman zaizkie aurkeztu diren lizitatzaileei, beherakor ordenatuta:

**Considerando los siguientes argumentos:**

- Que se propone la adjudicación a la empresa SESTRA INGENIERIA Y ARQUITECTURA, S.L., por considerarla la oferta económicamente más ventajosa en su conjunto para los intereses públicos, con fundamento en las valoraciones que obran en el expediente y se encuentran publicadas en el perfil del contratante, efectuadas por la Mesa de acuerdo con los criterios de adjudicación establecidos en los pliegos, por las que se atribuye a los licitadores presentados, ordenados de forma decreciente, las siguientes puntuaciones:

| | **Empresa lizitatzailea /** ***Empresa licitadora*** | Balio-judizio irizpideak<br>Criterios juicio de valor<br>45 puntu/puntos | Irizpide automatikoak<br>Criterios automáticos<br>55 puntu/puntos | ***GUZTIRA***<br>**TOTAL**<br>***100*** puntu/puntos |
|---|---|---|---|---|
| 1.º | SESTRA INGENIERIA Y ARQUITECTURA, S.L. | 41 | 28,87 | **69,87** |
| 2.º | I-INGENIA INGENIERIA Y ARQUITECTURA, S.A. | 28,50 | 37,68 | **66,18** |
| 3.º | GIRDER INGENIEROS, S.L. | 27 | 30,79 | **57,79** |
| 4.º | TECNICA Y PROYECTOS, S.A. | 21 | 33,30 | **54,30** |

- Kontratazioa onesteko organo eskuduna bera da kontratua esleitzeko ere.

**Ikusirik** espedientean jasotako dokumentazioa,

**EBATZI DUT**

***1. Esleitzea SESTRA INGENIERIA Y ARQUITECTURA, S.L. enpresari (IFZ B20871596) BELARTZAKO MENDI-HEGALEAN APARKALEKU BAT ERAIKITZEKO PROIEKTUA IDAZTEA, dagokion kontratua, honako baldintza hauetan:***

***Prezioa:*** ***71.000 euro, 58.677,69 euro + 12.322,31 euro BEZ (%21) banakatuta.***

***Honako teknikari-taldea gehigarria eskaintzen dute:***

- ***Arkitekto: 1***
- ***OPIT: 1***

- Que el órgano competente para la aprobación de la contratación lo es también para la adjudicación del contrato.

**A la vista de** la documentación obrante en el expediente

**HE RESUELTO**

***1.º Adjudicar a la empresa SESTRA INGENIERIA Y ARQUITECTURA, S.L. (N.I.F.: B20871596) el contrato relativo a la REDACCIÓN DE PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE UN APARCAMIENTO EN LA LADERA DE BELARTZA, en las siguientes condiciones:***

***Precio:*** ***71.000 euros, desglosado en 58.677,69 euros + 12.322,31 euros de IVA (21%).***

***Ofrecen el siguiente equipo técnico adicional:***

- ***Arquitecto/a: 1***
- ***ITOP: 1***

- *Geologoa edo Bide Ingeniaria: 1*
- *Topografoa: 1*

***Eskaintzen den teknikari-taldeak, emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaian gutxienez 15 orduko prestakuntza-ikastaro bat du egiaztatuta, organo ofizial batek ziurtatuta: 2 pertsona.***

***Aplikatuko den hitzarmen kolektiboa:** Ingenieritza Enpresen eta Ikerketa Teknikoen Bulegoen XVIII. Hitzarmen Kolektibo Nazionala (99002755011981 Kodea).*

***Kontratuaren iraupena:** Sei (6) hilabete.*

*Alternatiben azterketa, jarduera proiektua eta egikaritze-proiektua idazteko epea 6 hilabetekoa izango da, kontratua formalizatzen denetik zenbatuta, eta honela egituratuko da:*

*- 2 hilabete, alternatiben azterketa entregatzeko.*

*- 2 hilabete, jarduera-proiektua entregatzeko, alternatiben azterketa ontzat ematen denetik.*

*- 2 hilabete, egikaritze-proiektua entregatzeko, jarduera-proiektua entregatzen denetik.*

*Ez dira sartzen epe horien barruan dokumentazioa entregatzen denetik Udalak ontzat eman arteko aldiak, eta ezta herritarrek parte hartzeko prozesuak egiteko aurreikusten diren aldiak ere.*

***Luzapenak:** Ez da aurreikusten.*

***Prestazioa egiteko epea:** Kontratua formalizatzen den hurrengo egunetik hasiko da.*

***Finantziatzioa:** D-1727-2021 kontabilitate agiriaren kargura.*

***2. HERRI-LANETAKO GOI-INGENIARIA izendatzea kontratuaren arduradun.***

***3. Onestea aipatutako esleipena formalizatzeko administrazio-kontratua; zeina enpresa esleipenduneko ordezkariak sinatu beharko duen udalak hala eskatzen dionean, ez, ordea, hamabost egun baliodun baino geroago, esleipenaren jakinarazpena jasotzen den hurrengo egunetik aurrera kontatuta.***

***Kontratua formalizatzeko egintza Udaleko Idazkaritzako bulegoetan egingo da (San Juan Harria plaza, 1 - 2. solairua), Zerbitzuak eskatzen duenean.***

- *Geólogo/a o Ingeniero/a de Caminos: 1*
- *Topógrafo/a: 1*

***Que el equipo técnico que se ofrece acredita un curso de formación en materia de igualdad de mujeres y hombres de al menos 15 horas de duración certificado por órgano oficial: 2 personas.***

***Convenio colectivo de aplicación:** XVIII Convenio Colectivo Nacional De Empresas De Ingenieria Y Oficinas De Estudios Técnicos (Código 99002755011981).*

***Duración del contrato:** Seis (6) meses.*

*La redacción del estudio de alternativas, del proyecto de actividad y del proyecto de ejecución tendrá un plazo de 6 meses, contados desde la fecha de formalización del contrato estructurado de la siguiente manera:*

*- 2 meses para la entrega del estudio de alternativas.*

*- 2 meses para la entrega del proyecto de actividad, desde el V.B. del estudio de alternativas.*

*- 2 meses para la entrega del proyecto de ejecución, desde la entrega del proyecto de actividad.*

*No se consideran incluidos dentro de estos plazos, aquellos periodos en los que tras la entrega de documentación se esté en espera del visto bueno por parte del ayuntamiento, así como los periodos que contemplen los procesos de participación ciudadana*

***Prórrogas:** No se prevén.*

***Plazo de ejecución de la prestación:** Comienza desde el día siguiente a la formalización del contrato.*

***Financiación:** con cargo al documento contable D-1727-2021.*

***2.º Designar responsable del contrato a LA INGENIERO SUPERIOR DE OBRAS PÚBLICAS.***

***3.º Aprobar el contrato administrativo para la formalización de la citada adjudicación, que habrá de ser suscrito por el representante de la empresa adjudicataria a requerimiento municipal, no más tarde de los quince días hábiles siguientes a aquél en que se reciba la notificación de esta adjudicación.***

***El acto de formalización del contrato se efectuará en las oficinas de la Secretaría municipal (Plaza San Juan Harria, 1 – 2.ª planta), a requerimiento del***

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

*Kontratua sinatzen den unetik geratuko da osatuta kontratua.*

*4. Erabaki hau jakinaraztea enpresa esleipendunari eta gainerako enpresa lizitatzaileei.*

*5. Kontratazio hau argitaratzea klausula administratibo berezien pleguan ezarritakoaren arabera.*

*6. Erabaki hau irmoa da administrazio bidetik. Beraren aurka, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da, administrazioarekiko auziaren aurretik, hilabeteko epean, haren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, edo zuzenean aurkaratu Donostiako administrazioarekiko auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, haren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta; hori guztia, egoki iritzitako beste edozein aurkeztetik aparte.*

*Servicio.*

*Desde el momento de la firma del contrato es cuando se perfeccionará el contrato.*

*4.º Notificar el presente acuerdo a la empresa adjudicataria y al resto de las empresas licitadoras.*

*5.º Dar publicidad a esta contratación conforme a lo establecido en el pliego de clausulas administrativas particulares.*

*6.º La presente resolución pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.*

Irun, 2021eko maiatzaren 17a

ALKATEA / EL ALCALDE

Nire aurrean, / Ante mí,
IDAZKARI NAGUSIA / LA SECRETARIA GENERAL

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN